



SEDAZIO-ENDOSKOPIAREN EGUNEKO JARRAIBIDEAK

- Komenigarria da probaren egunean zure kargu egin daitekeen heldu arduradun batekin joatea.
- Abisatu gailuren bat badaramazu (taupada-markagailua, desfibriladorea, neuroestimulatzaila).
- Ukipen-lenterik gabe, azazkalen esmalterik gabe, gorputz-kremarik gabe eta makillajerik gabe joango zara.
- Arropa erosoarekin eta bitxirik gabe joango zara.
- Hortz postizoa edo audifonoa baduzu, ekarri ahal izango duzu, baina kendu egin beharko duzu probaren unean.
- Proba baino 8 ordu lehenagotik, gutxienez, ez duzu erreko.
- Ezingo duzu gidatu hurrengo egunera arte.
- Probaren ondoren, egin atsedeen erlatibo bat (sofa, ohea) eta ez hartu erabaki garrantzitsurik.
- Ez ahaztu zure osasun-dokumentazioa ekartzea. NAN ETA OSASUN-TXARTELA.
- Burdina bertan behera utzi beharko duzu miaketa baino 7 egun lehenago (kolonoskopiaren kasuan).

OHIKO MEDIKAZIOARI DAGOKIONEZ:

- Goizean, har ezazu zure ohiko medikazioa (tentsioarena, bihotzarena, arnasarena... barne) ur-zurrutada batekin. Ez ezazu bertan behera utzi.
- Diabetikoa bazara (ikus erantsitako orria).
- Antiagregatzaileak edo antikoagulatzaileak hartzen badituzu (Sintrom ®, Pradaxa ®, Xarelto ®, Clopidogrel ®...), jarraitu medikuak adierazitako jarraibideari.

➤ ENDOSKOPIA GOIZEZ EGITEN BADA (15:00ak baino lehen):

- GASTROSKOPIARAKO, CPRE eta/edo EKOENDOSKOPIARAKO:

OSPITALERATU AURREKO GAUEAN AFARI ARIN BAT HARTU AHAL IZANGO DUZU 24:00AK BAINO LEHEN. Ondoren, ura bakarrik hartu ahal izango duzu, ospitalera joan baino 2 ordu lehenago arte. Egun berean egiten bada kolonoskopiarekin batera, kolonoskopiaren jarraibideak bete beharko dituzu.

- KOLONOSKOPIARAKO:

Aipatu bezala, kolonoskopia prestatzeko protokoloari jarraitu beharko diozu.



➤ **ENDOSKOPIA ARRATSALDEZ EGITEN BADA (15:00etatik aurrera):**

GASTROSKOPIARAKO

GOSARI ARINA HAR DEZAKEZU 09:00AK BAINO LEHEN. Ondoren, ura bakarrik hartu ahal izango duzu, ospitalera joan baino 2 ordu lehenago arte. Egun berean egiten bada kolonoskopiarekin batera, kolonoskopiaren jarraibideak bete beharko dituzu.

KOLONOSKOPIARAKO:

Aipatu bezala, kolonoskopia prestatzeko protokoloari jarraitu beharko diozu.

Miaketa endoskopikoaren aurreko asteetan zure ohiko egoera aldatzen duen edozein egoera baduzu (arnas infekzioa azken 2 asteetan, ospitaleratzea, ohiko medikazioak aldatzea), horren berri eman behar diezu ENDOSKOPIEI. Tel.: 945 007500, zure kasua baloratzeko eta miaketa endoskopikoa eteteko aukera erabakitzeko.

Ez ahaztu Zitazio Zerbitzuari abisatzea, baldin eta, edozein arrazoi dela medio, ezin bada endoskopia programatutako datan egin.